# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

## 4526

*EBAZPENA, 2023ko irailaren 25ekoa, Plangintza eta Antolaketako zuzendariarena, Lanbide Heziketako irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2023-2024 ikasturtean Lanbide Heziketako eskaintza partziala emateko Hezkuntzako sailburuaren 2023ko apirilaren 19ko Aginduaren bidez deitutako dirulaguntzak emateko dena.*

Agindu horren 12. artikuluan dirulaguntza emateko prozedura zehazten zen, eta ebazpena ebaluazio-batzordeak proposatuta eman zen.

Ebaluazio-batzordeak, 2023ko apirilaren 19ko Aginduaren 13. artikuluan zehaztutako irizpideekin bat etorriz, eremu bakoitzerako egindako proposamenen lehentasun-ordenaren araberako onuradunen zerrenda ezarri zuen, eta Plangintza eta Antolaketako zuzendariari bidaltzea erabaki zuen, bai industria-arloko zikloak eskaintza partzialean emateko finantzaketa lortzen duten ikastetxeen behin-behineko zerrenda, bai zerbitzuen eta bestelakoen arlokoak.

Deialdi honetan, 476.000,00 euro bideratuko dira guztira, heziketa-zikloak emateko dirulaguntzetara. Zenbateko hori honela banatuko da: % 70 industria-arloko heziketa-zikloetara bideratuko da (333.200,00 euro), eta % 30 zerbitzuen eta bestelakoen arloko zikloetara (142.800,00 euro).

Industria-arloko heziketa-zikloetan, baldintzak betetzen dituzten aurkeztutako eskabideen guztizko zenbatekoa 420.518,00 eurokoa da, eta, azkenik, 330.456,00 euroko dirulaguntzak ematen dira, ez baitago nahikoa zuzkidura hurrengo modulua ebazteko (19.404,00 euro). Beraz, modalitate horri esleitutako aurrekontutik 2.744,00 euroko soberakina dago.

Soberakin hori erabili ahal izateko, aginduaren 2. artikuluko 2. puntuak adierazten du, laguntza-lerro bakoitzerako adierazitako zuzkidurak alde batera utzi gabe, eskaerarik ez egoteagatik edo baldintzak ez betetzeagatik horietako batean ezarritako zenbatekoa agortzen ez bada, gehiegizko kreditu hori besterako ezarritako zenbatekoa handitzeko erabiliko dela, betiere azken hori oraindik ebatzi gabe badago. Horregatik, zerbitzuen arloko heziketa-zikloetara bideratu beharreko partida handitu egin da: 145.544,00 euro.

Zerbitzuen eta bestelakoen arloko espedienteen eta baldintzak betetzen dituzten beste batzuen guztizko zenbatekoa 490.588,00 eurokoa da, eta, azkenik, 139.454,00 euroko dirulaguntzak ematen dira, ez baitago nahikoa zuzkidura hurrengo modulua ebazteko, 9.702,00 eurokoa.

Horregatik guztiagatik, ebaluazio-batzordeak, espedienteak berrikusi eta baloratu ondoren, zikloak eskaintza partzialean emateko finantzaketa lortzen duten ikastetxeen behin-behineko zerrenda proposatu zuen, bai industria-arlokoak, bai zerbitzu eta bestelakoen arlokoak.

Aginduaren 15.1 artikuluarekin bat etorriz, emakida-prozeduraren behin-behineko ebazpena, behar bezala arrazoitua, erakunde eskatzaileei jakinarazi zitzaien, aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritako bitarteko elektronikoen bidez, eta 10 eguneko epea eman zitzaien, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Jakinarazpena egin eta alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Ezarritako baldintzak eta agindu horren 5. artikuluan eskatutako dokumentazioa betetzen direla egiaztatu eta egiaztatu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean jasotzen diren ikastetxeei dirulaguntzak ematea industria-arloko prestakuntza-zikloak eskaintza partzialean emateko.

Bigarrena.– II. eranskinean jasotzen diren ikastetxeei dirulaguntzak ematea zerbitzu eta bestelakoen arloko prestakuntza-zikloak eskaintza partzialean emateko.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide Heziketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 25a.

Plangintza eta Antolaketako zuzendaria,
NICOLÁS SAGARZAZU ALZUA.

# I. ERANSKINA

## INDUSTRIA-ARLOKO ZIKLOAK ESKAINTZA PARTZIALEAN EMATEKO FINANTZAKETA LORTU DUTEN IKASTETXEEN ZERRENDA

| Kodea | Ikastetxea | Arloa | Zikloa | Modulua | Orduak | €/ordua | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 012456 | CPIFP Mondragon GOI ESK.POLITEK.,J.M.A.,S.COOP LHI | Instalatze- eta mantentze-lanak | Mekatronika industriala | 0936 - Sistema hidraulikoak eta pneumatikoak | 132 | 98,00 € | 12.936,00 € |
| | | | | 0937 - Sistema elektrikoak eta elektronikoak | 132 | 98,00 € | 12.936,00 € |
| | | | | 0942 - Mantentze-lanen eta kalitatearen prozesuak eta kudeaketa | 100 | 98,00 € | 9.800,00 € |
| | | | | 0946 - Laneko prestakuntza eta orientabidea | 99 | 98,00 € | 9.702,00 € |
| | | | | 0947 - Enpresa eta ekimen sortzailea | 60 | 98,00 € | 5.880,00 € |
| | | | | 0941 - Sistema mekatronikoen konfigurazioa | 160 | 98,00 € | 15.680,00 € |
| | | | | 0943 - Sistemen integrazioa | 231 | 98,00 € | 22.638,00 € |
| | | | | 0944 - Sistema mekatronikoen simulazioa | 80 | 98,00 € | 7.840,00 € |
| | | | | E200 - Ingeles teknikoa | 40 | 98,00 € | 3.920,00 € |
| | | | | 0945 - Mekatronika industrialeko proiektua | 50 | 98,00 € | 4.900,00 € |
| Mekatronika industriala | | | | | | | **106.232,00 €** |
| 012479 | CPIFP Centro de Estudios A.E.G. LHIPI | Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | Jantzigintza eta moda | 0002 - Patroiak | 105 | 98,00 € | 10.290,00 € |
| | | | | 0006 - Neurrirako jantzigintza | 168 | 98,00 € | 16.464,00 € |
| | | | | 0001 - Moda eta joerak | 132 | 98,00 € | 12.936,00 € |
| | | | | 0009 - Bezeroarentzako informazioa eta arreta | 63 | 98,00 € | 6.174,00 € |
| | | | | 0012 - Enpresa eta ekimen sortzailea | 63 | 98,00 € | 6.174,00 € |
| | | | | 0011 - Laneko prestakuntza eta orientabidea | 105 | 98,00 € | 10.290,00 € |
| | | | | 0013 - Lantokiko prestakuntza | 380 | 0,00 € | 0,00 € |
| Jantzigintza eta moda | | | | | | | **62.328,00 €** |
| 014775 | CPIFP LEA-Artibai LHIPI | Instalatze- eta mantentze-lanak | Mantentze-lan elektromekanikoa | 0953 - Muntakia- eta mantentze-lan mekanikoak | 189 | 98,00 € | 18.522,00 € |
| | | | | 0952 - Automatismo pneumatikoak eta hidraulikoak | 231 | 98,00 € | 22.638,00 € |
| | | | | 0955 - Linea automatizatuen muntaia- eta mantentze-lanak | 168 | 98,00 € | 16.464,00 € |
| Mantentze-lan elektromekanikoa | | | | | | | **57.624,00 €** |
| 014775 | CPIFP LEA-Artibai LHIPI | Elikagaien industriak | Elikagaiak elaboratzea | 0145 - Elikagaien industriako prozesu teknologikoak | 198 | 98,00 € | 19.404,00 € |
| | | | | 0031 - Elikagaiak manipulatzeko segurtasuna eta higienea | 66 | 98,00 € | 6.468,00 € |
| Elikagaiak elaboratzea | | | | | | | **25.872,00 €** |
| 014828 | CPEIPS Maristas-San Miguel HLBHIP | Energia eta ura | Energia-eraginkortasuna eta eguzki-energia termikoa | 0355 - Energia-eraginkortasuneko eta eguzki-energia termikoko proiektua | 50 | 98,00 € | 4.900,00 € |
| | | | | E200 - Ingeles teknikoa | 40 | 98,00 € | 3.920,00 € |
| | | | | 0357 - Enpresa eta ekimen sortzailea | 60 | 98,00 € | 5.880,00 € |
| | | | | 0358 - Lantokiko prestakuntza | 360 | 0,00 € | 0,00 € |
| Energia-eraginkortasuna eta eguzki-energia termikoa | | | | | | | **14.700,00 €** |

| Kodea | Ikastetxea | Arloa | Zikloa | Modulua | Orduak | €/ordua | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 015069 | CPIFP Peñascal LHIPI | Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa | Diseinuko eta altzari hornikuntza | 0987 - Arotzeriako eta altzarigintzako automatizazioa | 160 | 98,00 € | 15.680,00 € |
| | | | | 0988 - Arotzeriako eta altzarigintzako instalazioak | 120 | 98,00 € | 11.760,00 € |
| | | | | 0989 - Arotzeriako eta altzarigintzako diseinua | 120 | 98,00 € | 11.760,00 € |
| | | | | 0990 - Arotzeriako eta altzarigintzako produkzioaren kudeaketa | 100 | 98,00 € | 9.800,00 € |
| | | | | 0991 - Diseinuko eta altzari-hornikuntzako proiektua | 50 | 98,00 € | 4.900,00 € |
| | | | | E200 - Ingeles teknikoa | 40 | 98,00 € | 3.920,00 € |
| | | | | 0993 - Enpresa eta ekimen sortzailea | 60 | 98,00 € | 5.880,00 € |
| | | | | 0994 - Lantokiko prestakuntza | 360 | 0,00 € | 0,00 € |
| Diseinu eta altzari hornikuntza | | | | | | | **63.700,00 €** |
| **Guztira** | | | | | | | **330.456,00 €** |

AURREKONTU KREDITUA AGORTU DELAKO DIRULAGUNTZARIK JASO EZ DUTEN MODULUAK

| Kodea | Ikastetxea | Arloa | Zikloa | Modulua |
|---|---|---|---|---|
| 014775 | CPIFP LEA-Artibai LHIPI | Elikagaien industriak | Elikagaiak elaboratzea | 0142 - Lehengaiak egokitzeko eragiketak |
| | | | | 0141 - Elikagaien industriako lehengaiak |
| | | | | 0030 - Elikagaien industrietako biltegiko lanak eta kontrola |
| 012456 | CPIFP Mondragon GOI ESK.POLITEK.,J.M.A.,S. COOP LHI | Instalatze- eta mantentze-lanak | Mekatronika industriala | 0936 - Sistema hidraulikoak eta pneumatikoak |
| | | | | 0937 - Sistema elektrikoak eta elektronikoak |
| | | | | 0942 - Mantentze-lanen eta kalitatearen prozesuak eta kudeaketa |
| | | | | 0946 - Laneko prestakuntza eta orientabidea |
| | | | | 0947 - Enpresa eta ekimen sortzailea |

# II. ERANSKINA

## ZERBITZUEN ETA BESTELAKOEN ARLOKO ZIKLOAK ESKAINTZA PARTZIALEAN EMATEKO FINANTZAKETA LORTU DUTEN IKASTETXEEN ZERRENDA

| Kodea | Ikastetxea | Arloa | Zikloa | Modulua | Orduak | €/ordua | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 012490 | CPIFP Nazaret Lanbide Heziketa LHIPI | Osasungintza | Erizaintzako zaintza osagarriak | 0003 - Ospitaleko higienea eta materialen garbiketa | 210 | 98,00 € | 20.580,00 € |
| | | | | 0004 - Osasunaren sustapena eta pazientearentzako laguntza psikologikoa | 90 | 98,00 € | 8.820,00 € |
| | | | | 0005 - Laguntza odontologiko-estomatologikoko teknikak | 90 | 98,00 € | 8.820,00 € |
| | | | | 0006 - Lan-taldeko harremanak | 60 | 98,00 € | 5.880,00 € |
| | | | | 0008 - Kalitatea eta etengabeko hobekuntza | 40 | 98,00 € | 3.920,00 € |
| | | | | 0009 - Lantokiko Prestakuntza | 340 | 0,00 € | 0.00 € |
| | | | | Erizaintzako zaintza osagarriak | | | **48.020,00 €** |
| 013500 | CPES Centro Formación Mendibil Formazio ZENT. BHIP | Irudi pertsonala | Estetika eta edergintza | 0635 - Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea | 165 | 98,00 € | 16.170,00 € |
| | | | | 0636 - Eskuetako eta oinetako estetika | 132 | 98,00 € | 12.936,00 € |
| | | | | 0638 - Analisi estetikoa | 99 | 98,00 € | 9.702,00 € |
| | | | | Estetika eta edergintza | | | **38.808,00 €** |
| 015305 | CPIFP Harrobia LHIPI | Jarduera fisikoak eta kirolak | Egokitzapen fisikoa | 1153 - Kontrol posturala, ongizatea eta mantentze funtzionala | 198 | 98,00 € | 19.404,00 € |
| | | | | 0017 - Gizarte-trebetasunak | 99 | 98,00 € | 9.702,00 € |
| | | | | 1148 - Fitness-a erabilera anitzeko gelan | 240 | 98,00 € | 23.520,00 € |
| | | | | | | Egokitzapen fisikoa | **52.626,00 €** |
| | | | | | | **Guztira** | **139.454,00 €** |

AURREKONTU KREDITUA AGORTU DELAKO DIRULAGUNTZARIK JASO EZ DUTEN MODULUAK

| Kodea | Ikastetxea | Arloa | Zikloa | Modulua |
|---|---|---|---|---|
| 013500 | CPES Centro Formación Mendibil Formazio ZENT. BHIP | Irudi pertsonala | Estetika eta edergintza | 0640 - Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak |
| | | | | 0642 - Lurringintza eta kosmetika naturala |
| | | | | 0646 - Lantokiko prestakuntza |
| 012566 | CPIFP Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola LHIPI | Osasungintza | Erradioterapia eta dosimetria | 1345 - Pazientearen arreta |
| | | | | 1346 - Oinarri fisikoak eta ekipoak |
| | | | | 1347 - Irudi bidezko anatomia |
| | | | | 1348 - Babes erradiologikoa |
| | | | | E200 - Ingeles teknikoa |
| | | | | 1359 - Tratamenduaren simulazioa |
| | | | | 1362 - Brakiterapia bidezko tratamenduak |
| | | | | 1363 - Erradioterapia eta dosimetriako proiektua |
| | | | | 1366 - Lantokiko prestakuntza |
| 015069 | CPIFP Peñascal LHIPI | Ostalaritza eta turismoa | Sukalde-zuzendaritza | 0496 - Lehengaien hornikuntzaren kontrola |
| | | | | 0497 - Sukaldeko aurreelaborazio- eta kontserbazio-prozesuak |
| | | | | 0502 - Gastronomia eta nutrizioa |
| | | | | 0503 - Jatetxe-arloko administrazio eta merkataritzako kudeaketa |
| | | | | 0179 - Ingeles |
| | | | | 0501 - Elikadurako kalitatearen eta segurtasunaren eta higienearen kudeaketa |
| 012490 | CPIFP Nazaret Lanbide Heziketa LHIPI | Osasungintza | Erizaintzako zaintza osagarriak | 0001 - Administrazio-eragiketak eta Osasungintzako dokumentazioa |
| | | | | 0002 - Erizaintzako oinarrizko teknikak |
| | | | | 0007 - Lan-prestakuntza eta orientabidea |
| 012497 | CPIFP CEBANC LHIPI | Informatika eta komunikazioak | Web aplikazioen garapena | 0612 - Bezero-inguruneko web-garapena |
| | | | | 0613 - Zerbitzari-inguruneko web-garapena |
| | | | | 0614 - Web-aplikazioen hedapena |
| | | | | 0615 - Web interfazeen diseinua |
| | | | | 0616 - Web aplikazioen garapeneko proiektua |
| | | | | 0619 - Lantokiko prestakuntza |
| | | | | 0617 - Laneko prestakuntza eta orientabidea |
| | | | | 0618 - Enpresa eta ekimen sortzailea |
| 014718 | CPIFP Zabalburu LHIPI | Osasungintza | Laborategi kliniko eta biomedikoa | 1368 - Laborategiko teknika orokorrak |
| | | | | 1367 - Lagin biologikoen kudeaketa |